

BESTE EMAKUME BAT ERAILA!

PROTOKOLOA AKTIBATZEN DA!

Beste emakume bat erail dute Euskal Herrian. Gaur goizean izan da. Sestaon.

1, 2, 3, 4 ... zenbatzen ditugu urtea hasi zenetik erail dituztenak eta hauetako bakoitzak barru-barruan zabalik daukagun zauria ukitzen digu. Eta zauri horretatik orroa irteten da. Orroa eta indarra, kapritxoak gure bizitzak etetea erabaki dezaketela uste duten horiei aurrean gauzkatela adierazteko INDARRA. Kalera behin eta berriz irten eta arduradun politikoaren aurrean erantzukizuna exijitzeko INDARRA.

Horregatik, idatzi honen bitartez, Arrasateko mugimendu feministak gertaera honen aurrean erabateko gaitzespena adierazi nahi du, eta bide batez deia egiten die herritar guztiei, bihar, ostirala, arratsaldeko 19:00etan Herriko Plazan izango den elkarretaratzean beraien gaitzespena ere adieraz dezaten.

Erailketa matxistak dira egunero emakumeak zapaltzen gaituen sistema honen adierazlerik latz eta bortitzenak. Egunerokotasunekoak dira, ordea, emakume guztiek patriarkatuaren eraso, tranpa eta horiei aurre eginez zeharkatu beharrekoak. Biktima baino gehiago, definizioz biolentzia den sistema honen indarkeriari aurre egiten dioten subjektu aktiboak garelako. Egun batean, ausart baino gehiago, aske izan gaitzen borrokatzen dugulako!

Amaitzeko, ezin dugu adierazpen hau itxi gaurkoan erail duten emakumearen senitarteko zein lagunei erabateko babes eta elkartasuna adierazi gabe.

Gutako bakarria erasotzen duten artean martxan jarraituko dugu!